

Jaungoikua'ren izenekoai on egiñ.

BEARTSUEI, echeik eche laguntzaren billa, ogi puzka baten eske dabiltzanei, Jaungoikua'ren izenekuak deitu izan zaye, ta Jaungoikua'ren izenekoai bezela lagundu izan diote beti Euskal-errian.

Oitura eder onen aldekoa da orain azaltzera guazen ipui zarra.

*
* * *

Bi anai ziran. Zarrena ezkondu zan neskach aberatz batekin; bigarrena, arlote šamar batekin.

Anai zarrari zorionak lagundu zion, eta uste gabe, alde guztietatik dirua zetorkion. Gastia berriz ari zan gelditu gabe lanian eta egunetik egunera gaizkiyago arkitzen zan.

Zarrena aberastu zan, baña era berian biotza gogortu zitzaion, eta jaungoikuaz asturik, diruan jarriya zeukan biyotz oso osua.

Beste gizarajua berriz lanian gogotik ekin arren, ezin zan inolare aurrera atera. Gaur bi irabazten bazitun, bigar lau galdu biarrian arkitzen zan. Bañan bere beartasun guzietan Jaungoikuaz gogoratzen zan, eta bere beso šamurretan jartzen zuben etorkizuna.

Inguru artan ermitacho polit bat zegon. Bertan azaltzen zan Jesu-kristoren ekantza gurutzetik zintzilik, eta bere oñetan egiten zitun anai gazteenak bere eguneroko otoitzak.

Biartubak arkitua gatiak, arrera ona egiten zioten echera zijoazen eskaliei, eta zutenetik ematen zioten kupirik gabe Jaungoikoa'ren izenekoai.

Lenagoko estuasunak azki etzirala gašotu zan seme zintzo au, eta orduban etorri ziran egun gorriyak, eta gosia nolakua zan ikusi zuten.

Larritasun artan joan ziran anai aberatzaren gana laguntza eskatuaz, baña izugarritzko arrera charra egin zioten, eta diru piška bat botiaz, bigaldu zituzten esanaz ez geyago ara juateko, alper lasai batzuek ziralako.

Negarrez biurtu ziran echera, eta Jainkuaz gogoraturik erabaki zuten, anayak botatako diru piška arrekin ogiya erozi eta eltzekai zerbait egin eta ermitako Kristo doneari eskeintzia.

Esan eta egin. Juantzan ermitachora eta belaunikaturik Jaunaren aurrian esan zion beñere baño larriyago arkitzen zirala eta berakin bazkaltzera juateko, beren samintasunak šamurtuaz.

Otoiz au egin zunian iduritu zitzaion ekantzak buruakin bayez esan ziola, eta masalletan bera negarra zeriola juan zan lazterka emazteari kontu ematera.

Eguerdia irichi'zan eta jo zuten atia. Ermita'ko Jesus zalakoan iriki zuben andriak, baña arkitu zan aiton šimur batekin. Jaungoikua'ren izenian laguntza eskatzen zun.

—Ez da bada gure echian eltzekari piška bat besterik, ziyon emaztiak, baña ezin utzik bigalduko degu aiton beartzu au. Nik beintzat neri dagokina, emango diot.

—Baita nik ere neretzat dagona, erantzun zion zenarrak.

Aiton gizarajuak jan zituen eman zizkietenak, eta eskerrak emanaz alde egin zuen echia bedeinkatu ondorian.

Baňan orduak aurrera zijoazten eta ermitako Jesus'ik etzan ageri. Joantzan beaz gure gizona ermitara eta esan zion Jesus'i bere zai zeudela.

—Isan naiz, erantzun zion, arrera ona egin dirazute eta echia bedeinkatu dizutet.

Ordu arte beartsuak maite bazituzten geyago maite zituzten andik aurrera. Echeke atiak zabalik zeuden beti beartsuentzat.

Eritasunak alde egin zun, egun ura ezkerre dana zan eche artan zorion ta ugaritasuna.

Zerbait jakin zun, anai aberatzak, eta juan zan aure ermitako Jesus'en gana ta bazkariya eskañi ziyon. Jesus'ek bayezkua buruz aditzera eman ziyon.

Jauregia baño apaňago jarri zuten echia, sekulako bazkariya antolatu zuten. Esteyak zirala zirudien eche arrek. Beren antolapen ayetan zebiltzala jo zuten atia ta eskale bat azaldu zan. Goziak, iya illian nago, esan ziyen, ta ekatzute arren zerbait.

Ua ortikan alper gaštu ori, erantzun zion anai aberatzaren emas-

teak. Beartsuak egiten zitun alegiñak zerbait emateko, ta orduan andriak zigor batekin juaz bigaldu zun gogorrian.

Jesus'ik etzan ageri, ta anai aberatza juan zan ermitara ta esan zion: zure zai gaude.

— Izandu naiz, erantzun zion, eta aurrian bigaldu nazute, ara emen nun daukazkitan zure emaztiak zigorrarekin egin dizkitan zauriak.

Oso lotsaturik biurtu zan anai aberatza eche aldera... baña etzun echerik arkitu. Ermita'n zan bitartian erre zan eta auts pilla bat beste-rik etzan gelditu.

Bere ontasunak ere ortara biurtu ziran: auts utzera.

*
* *

Nere amona gañuak, bere magalian artu ta musuka josiyaz, milla aldiz guchiye naz kontu au esan ziran.

Illoba maitia, esaten ziran ondoren, oroitu zaitia beti beartsuaz; beartsu batek echeko atia jotzian, lagundu, eman zerbait, alaitu arren samintasuna.

Eskale bat juaten zanian gure echera, Jaungoikua'ren izenian laguntza eskatzera; neroni agintzen ziran muñ egiñ eta zerbait emateko.

Ondoren beti esango ziran:

Nere illoba maitia, zuk ori egiten dezunian, Jaungoikuak poz aundiya artzen du, eta egunen batian etzaizu damutuko.

Gogorata beti ermitacho'ko Jesus'tzaz.

Y.

